**Txostena**
***Memoria***

**MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / *SOCIEDADES MERCANTILES FORALES***

**Interbiak Bizkaia, S.A. M.P.**
***Interbiak Bizkaia, S.A. M.P..***

## Aurrekariak.-

Interbiak, Bizkaia, S.A.M.P.ren xedeak hauexek dira: "*Bizkaiko Foru Aldundiak hala aginduz gero, bide-azpiegiturei buruzko azterlan eta proiektuak egitea, bide-azpiegiturak egin, zaindu, mantendu, finantzatu eta ustiatzea, bere kabuz edo gainerakoen bitartez.*

Interbiak-ek, halaber, AP-8 autobidea kudeatzen du, erabiltzaileei kanona aplikatuz Basauritik Gipuzkoako mugarainoko tartean; Hegoaldeko Saihesbide Metropolitarra egin eta kudeatu behar du eta erabiltzaileei bidesaria aplikatuz kudeatu; Bizkaiko Lurralde Historikoko irisgarritasun sistemako beste azpiegitura batzuk eraiki behar ditu, Bizkaiko Foru Aldundiak horrela agintzen dionean.

Bestalde, Bizkaiko Batzar Nagusiek 2003ko martxoaren 26an egindako osoko bilkuran eta 4/2003 Foru Arauaren eta zati batean 1/2005 eta 8/2010 Foru Arauek aldatu duena) onetsitako Bizkaia 2003 Irisgarritasunerako Plan Berezian ezartzen da Bizkaiko Lurralde Historikoko bide-azpiegitura publikoak burutu behar direla bertako azpiegiturak egokitzeko aukera egon dadin.

Bizkaiko Foru Aldundiaren konpromisoa da sozietateari diru ekarpen batzuk egitea eta, aldi berean, sozietateak agindu zaizkion jarduketak egiteko bitarteko nahiko izango duela bermatzea; hori ondore horietara iristeko beharrezkoak izango diren baliabideak erabiliz egingo du, hau da, sozietatearen oreka ekonomiko-finantzarioa mantentzeko.

## Aginduak garatzea

Horretarako jasotako aginduen arabera, eta aurreikusitako egutegia aintzat hartuta, Bizkaiko Foru Aldundiak PEAB 2003 delakoan agindu zituen proiektuen gehiengoa jarri du abian Interbiakek (AP-8 autobidearen kudeaketa onartzea Ermua eta Basauriko tartean, hirugarren bideak handitzea

## Antecedentes.-

Interbiak, Bizkaia, S.A.M.P. tiene por objeto social "*la realización de estudios, proyección, construcción, conservación, mantenimiento y explotación, por sí misma o por terceros, de las infraestructuras viarias que se le encomienden por la Diputación Foral de Bizkaia.*

El objeto incluye, asimismo, la gestión y operación mediante la aplicación de un canon por el uso de la Autopista A-8 en el tramo comprendido entre Basauri y el límite con Gipuzkoa y la construcción y operación mediante aplicación peaje de la Variante Sur Metropolitana, así como la construcción de otras infraestructuras pertenecientes al sistema de accesibilidad del Territorio Histórico de Bizkaia, que le sean encomendadas por la Diputación Foral de Bizkaia.

Por su parte, el Plan Especial de Accesibilidad de Bizkaia 2003, aprobado por las Juntas Generales de Bizkaia en Sesión Plenaria de 26 de marzo de 2003, y por la Norma Foral 4/2003, modificada parcialmente por las Normas Forales 1/2005 y 8/2010, establece la necesidad de acometer diversas actuaciones públicas que permitan adecuar las infraestructuras públicas viarias del Territorio Histórico de Bizkaia.

La Diputación Foral de Bizkaia se compromete a diversas aportaciones dinerarias a la sociedad así como a garantizar que la Sociedad cuente con los recursos suficientes para realizar las actuaciones encomendadas, a través de los medios que resulten necesarios para tal fin, en orden a mantener en cualquier caso el equilibrio económico-financiero de la Sociedad.

## Desarrollo de Encomiendas

Conforme a las encomiendas recibidas al efecto, y al calendario previsto, Interbiak ha ido desarrollando la mayor parte de los proyectos encomendados por la Diputación Foral de Bizkaia en el PEAB 2003 (asunción de la gestión de la autopista AP-8, en su tramo de peaje entre Ermua y Basauri, ampliación de

azpiegitura horretan Galdakaotik Gerediagaraino, sarbide berrien eraikuntza barne, Zaldibarko tunelak zaharberritzea, Kadaguako korridorea eta Ballontiko ardatza eraikitzea). 2007. urtean hasi zen Hegoaldeko Saihesbide Metropolitarraren eraikuntza; saihesbide horren lehen fasea 2011. urtean amaitu zen.

Arestian aipatu bezala, Interbiak sozietateak hurrengo jarduketak burutuko ditu:

1. AP-8 autobidearen Usansolo-Gipuzkoako Lurralde Historikoko tartea
2. AP-8 autobidearen Hegoaldeko Saihesbide Metropolitarra tartea
3. Beste agindu batzuk.

## 1. AP-8 autobidearen Usansolo-Gipuzkoako Lurralde Historikoko tartea

2003ko ekainaren 6an, AP-8 autobidean emakida bukatu eta azpiegitura hori herri jabaritzara itzuli zenean, sozietateak Bizkaiko Foru Aldundiaren agindua jaso zuen eta ondorioz AP-8 autobidearen kudeaketa eta ustiapenari ekin zion Gipuzkoako Lurralde Historikoko mugatik Basauriko lotuneko ekialdeko muturreraino. Tarte horren luzera, guztira, 36,16 km-koa da.

### 1.a. Ustiapena

Autobidea artatzeko, mantentzeko eta ustiatzeko jarduerak autobideen kudeaketan espezializatuta dagoen enpresa baten laguntzarekin burutzen dira horrela Interbiak sozietateak definitzen dituen trantsitabilitate, segurtasun eta erosotasun mailak mantenduz,

terceros carriles en esta misma infraestructura desde Galdakao hasta Gerediaga, incluida la construcción de nuevos accesos, la remodelación de los Túneles de Zaldibar, la construcción del Corredor del Kadagua y del Eje del Ballonti), habiéndose iniciado en el año 2007 la construcción de la Variante Sur Metropolitana finalizada en su primera fase en el año 2011.

Tal y como se ha señalado, las actuaciones a desarrollar por Interbiak, se engloban en:

1. Autopista AP-8 Tramo: Usándolo-Límite Territorio Histórico Gipuzkoa
2. Autopista AP-8 Tramo: Variante Sur Metropolitana
3. Otras Encomiendas

## 1. Autopista AP-8 Tramo: Usándolo-Límite Territorio Histórico Gipuzkoa

El 6 de junio de 2003, tras finalizar la concesión en la AP-8, y revertir la infraestructura al dominio público, Interbiak, por encomienda de la Diputación Foral de Bizkaia asume la responsabilidad en la gestión y explotación de la autopista AP-8 en el tramo que discurre entre el límite con el Territorio Histórico de Gipuzkoa y el extremo oriental del enlace de Basauri, con una longitud total de 36,16 km.

### 1.a. Explotación

Las actividades propias de la conservación, mantenimiento y explotación de la autopista se llevan a cabo con la asistencia de una empresa especializada en la gestión de autopistas, al objeto de mantener los niveles de transitabilidad, seguridad, calidad y confort definidos por Interbiak.

**Interbiak Bizkaia, S.A. M.P.**
***Interbiak Bizkaia, S.A. M.P..***

1.a.1. AP-8 autobidearen Usansolo-Gipuzkoako Lurralde Historikoko tartean erabiltzaileen eskura dauden zerbitzuak

Autobideko laguntza zerbitzua urte osoko egun guztietan eta 24 orduetan ematen da eta horretarako, autobidean zuzenean ematen diren laguntza zerbitzuez gain, erabiltzaileen eskura jartzen dira informazioa eta laguntzarako telefonoak, web orria, mezuak ezartzen dira informazioa emateko paneletan bidean bertan eta aldiro bide sarean egingo diren jarduketei eta/edo horien eraginei buruzko informazioak ematen dira.

1.a.2. Artapen- eta ustiapen-kontratua

AP-8 autobidearen Bizkaiko tartean (Usansolo-Gipuzkoako Lurralde Historikoa) ustiapenari lotuta dauden eguneroko lanei ekitearen ondoreetarako Interbiakek Gestión de Infraestructuras de Bizkaia-Bizkaiko Azpiegituren Kudeaketa, S.A.. sozietateari adjudikazio zion AP-8 autobidearen Bizkaiko Lurralde Historikoko tartearen kontserbazio eta ustiapenerako kontratu bat.

## 1.b. Azpiegitura artatzea

1.b.1. Inbertsioak eta hobekuntzak

Autobide bat artatzeko eta mantentzeko ohikoak eta beharrezkoak diren eragiketak ez ezik eta kontuan hartuta itzuli zenean azpiegiturak zuen egoera, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Interbiak sozietateak autobidea zerbitzua emateko eta segurtasun maila egokietara ekartzeko jarduketa batzuk ezarri zituzten, eta besteak beste azpiegitura batzuetatik bertara iristeko sarbideak egitea.

1.a.1. Servicios disponibles para los usuarios de la AP8 Tramo: Usándolo-Límite Territorio Histórico Gipuzkoa

El servicio de asistencia en la autopista se presta a los usuarios durante las 24 horas de todos los días del año, para lo cual, además de la asistencia que se presta directamente en la infraestructura, se ponen a disposición del usuario teléfonos de información y asistencia, página web, mensajes en paneles de información en la propia vía e informaciones periódicas sobre las actuaciones en la red viaria y/o afecciones.

1.a.2. Contrato de mantenimiento y explotación

Con objeto de atender las labores diarias de explotación del tramo vizcaíno de la AP-8 (Usánsolo-Límite Territorio Histócio Gipuzkoa),Interbiak tiene adjudicado a la empresa Gestión de Infraestructuras de Bizkaia-Bizkaiko Azpiegituren Kudeaketa, S.A. un contrato para la conservación y explotación de la Autopista AP-8 en el tramo que discurre por el Territorio Histórico de Bizkaia.

## 1.b Mantenimiento de la infraestructura

1.b.1. Inversiones y mejoras

Además de las operaciones normales de conservación y mantenimiento en una autopista, y debido al estado de la infraestructura en el momento de la reversión, la Diputación Foral de Bizkaia e Interbiak han ido desarrollando una serie de actuaciones necesarias para poner la autopista a un nivel de servicio y seguridad adecuados y proveerla de los accesos desde otras infraestructuras.

1.b.2. Erreiak zabaltzea

Jarduketa honen xedea bidearen kapazitatea zabaltzea da horretarako bi galtzadetan 3,5 metroko zabalera izango duen hirugarren erreia eraikiz Basauri-Gerediaga tartean. Proiektu honek, dena dela, baditu beste helburu batzuk, adibidez ondoko hauek: autobidearen ezaugarri orokorrak hobetzea; Urgoiti/El Gallo, Galdakao,Txorierriko korridorea eta Gerediagaren lotuneak eta adarrak garatzea; trafikoa kudeatzeko sistema berria aplikatzea; eta, oro har, bidearen elementu guztiak egungo arautegiaren arabera egokitzea, batez ere segurtasunari dagokionez (seinalizazioa, oztopo zurrunak, SOS paldoak).

Proiektu honek ezarri du plataforma zabalduko dela, baina autobidearen egungo taxuketa aldarazi gabe, hau da, bide honen eraikuntzaren jatorrizko proiektuaren ardatza mantenduz, unean uneko salbuespen oso gutxitan izan ezik.

1.b.2. Ampliaciones de carriles

El objetivo de la actuación ha sido la de ampliar la capacidad de la vía mediante la construcción de un tercer carril de 3,5 metros de anchura en ambas calzadas entre Basauri y Gerediaga. Asimismo, otro de los objetivos ha sido la de mejorar las características genéricas de la autopista, desarrollar nuevos enlaces y ramales (Urgoiti/El Gallo, Galdakao, Corredor Txorierri, Gerediaga) e implementar un nuevo sistema de gestión de tráfico, todo ello enmarcado bajo la premisa de adecuar los distintos elementos de la vía a la normativa vigente reforzando especialmente los aspectos de seguridad (señalización, barreras rígidas, postes SOS).

Este proyecto ha contemplado la ampliación de la plataforma sin modificación del actual trazado de la autopista, manteniendo el eje del proyecto original de construcción de esta vía, salvo excepciones muy puntuales.

## 1.c. Zerbitzuguneak

1.c.1 Amorebieta-Etxanoko zerbitzugunea

Interbiak-ek, besteak beste, AP-8 autobidearen Bizkaiko tartean instalatutako Zornotzako zerbitzugunea artatzeko eta ustiatzeko lana garatuko du.

Sozietate adjudikatarioak, REPSOL YPF, zeinaren kontratua 2004ko urrian jarri baita indarrean, datozen 20 urteetan Interbiak-ek kalitatea ikuskatu eta kontrolaturik, zerbitzu-aldeko instalazioak ustiatzeaz gain, bertako jatetxe eta dendako instalazioak berritzen eta konpontzen ari da, eta baita erregaia hornitzeko instalazioak zaharberritzen eta bide-saria ordaintzen den tokitik bertara zuzen iristeko bidea eraikitzen eta aparkalekuak berritzen ere.

## 1.c. Areas de Servicio

1.c.1 Area de Servicio de Amorebieta

Entre las actuaciones a desarrollar por Interbiak cabe resaltar la conservación y explotación del Area de Servicio instalada en el tramo vizcaíno de la Autopista AP-8, el Area de Servicio de Amorebieta.

La sociedad adjudicataria, Repsol YPF, cuyo contrato entró en vigor en octubre del 2004, además de explotar directamente las instalaciones del área de servicio, bajo la supervisión y control de calidad de Interbiak durante los próximos 20 años, ha procedido a la renovación de las instalaciones del restaurante y tienda, de las instalaciones del suministro de carburante, habiéndose culminado la construcción de accesos directos desde y hacia el área de peaje y a la renovación de los aparcamientos.

## 2. AP-8 autobidearen Hegoaldeko Saihesbide Metropolitarra tartea

AP-8 autobidearen Hegoaldeko Saihesbide Metropoliarra (HSM) tartea funtsezko atala da Bizkaiko Irisgarritasuneko Plan Berezia 2003 delakoaren barruan; Plan horren arabera Interbiaki agindu zitzaion elementu hori Bizkaiko Errepideen Arlokako Lurralde Planean (ALP) integratzeko beharrezko lanak eta azterlanak egitea.

Bizkaiko Batzar Nagusietan 2005eko martxoan onetsi zen Errepideen Arlokako Lurralde Planaren aldarazpena eta, horren bidez, bere barruan integratu zen AP-8ko HSM tartea.

### 2.a. Proiektuaren deskripzioa

AP-8 ko HSM tartearen arloko jarduketa da, 17,8 kilometroko luzera duena Gallarta eta A-8 eta AP-68 autobideen arteko Buiako (Bilbo) gurutzearen artean. Horren eraikuntza, bere lehen tarteetan, 2007 urtearen erdian hasi zen; abian jarri zen 2011ko irailean.

### 2.b. Ustiapena

AP-8ko HSM tarteko autobidearen ustiapenaren arloko eguneroko lanei ekitearen ondoreetarako Interbiakek Transbisa, Gestión de Infraestructuras, S.A. sozietatearia adjudikatu zion kontserbazio eta ustiapenerako kontratu bat.

Kontratu honen barruan, Artxandako Tunelen kontserbazio eta ustiapenerako lanak ere daude.

## 2. Autopista AP-8 Tramo: Variante Sur Metropolitana

El tramo Variante Sur Metropolitana (VSM) de la autopista AP-8 constituye una de las piezas fundamentales del Plan Especial de Accesibilidad de Bizkaia 2003, que encomienda a Interbiak la realización de los trabajos y estudios precisos para su inclusión del Plan Territorial Sectorial (PTS) de Carreteras de Bizkaia.

En marzo de 2005 se aprobó por la Juntas Generales de Bizkaia la modificación del PTS de Carreteras, por la que quedaba integrada el tramo VSM de la AP-8.

### 2.a. Descripción del proyecto

El tramo VSM de la AP-8 es una actuación viaria de 17,8 kilómetros entre Gallarta y la intersección de la A-8 y la AP-68 en Buia (Bilbao), habiéndose iniciado su construcción, en sus primeros tramos, a mediados del 2007, siendo su puesta en servicio en setiembre de 2011.

### 2.b. Explotación

Con objeto de atender las labores diarias de explotación, Interbiak tiene adjudicado a la empresa Transbisa, Gestión de Infraestructuras, S.A. un contrato para la conservación y explotación de la AP-8 Tramo: Variante Sur Metropolitana.

Dentro de este contrato se desarrollan las actuaciones correspondientes a la conservación y explotación de los Túneles de Artxanda

2.b.1. AP-8ko HSM tarteko autobidearen eta Artxandako Tunelen erabiltzaileen eskura dauden zerbitzuak

AP-8ko HSM tartean eta Artxandako Tuneletan laguntza zerbitzua urte osoko egun guztietan eta 24 orduetan ematen da eta horretarako, autobideetan zuzenean ematen diren laguntza zerbitzuez gain, erabiltzaileen eskura jartzen dira informazioa eta laguntzarako telefonoak, web orria, mezuak ezartzen dira informazioa emateko paneletan bidean bertan eta aldiro bide sarean egingo diren jarduketei eta/edo horien eraginei buruzko informazioak ematen dira.

2.b.1. Servicios disponibles para los usuarios de la AP-8 tramo VSM y los Túneles de Artxanda

El servicio de asistencia en tanto en el tramo VSM de la AP-8 como en los Túneles de Artxanda se presta a los usuarios durante las 24 horas de todos los días del año, para lo cual, además de la asistencia que se presta directamente en las infraestructuras, se ponen a disposición del usuario teléfonos de información y asistencia, página web, mensajes en paneles de información en las propias vías e informaciones periódicas sobre las actuaciones en las redes viarias y/o afecciones.

## 2.c. Eraikuntza

1b Faseko lanak. Peñaskal-Venta Alta tartkoa, 2019an zehar eraikitze lanak martxan jarri dira . Lanak bi alditan zatitu dira: alde batetik, azpiegitura bi ataletan eta bestalde, gainegitura gauzatzea.

Aipatutako azpiegitura lanak honako hauek dira:

- Peñaskal-Bolintxu Atala
- Bolintxu-Venta Alta Atala (atal hau bi jardueretan dago zatituta: Bolintxu-Venta Alta lotura eta Seberetxeko Tunela)

## 2.c. Construcción

Durante el año 2019 se han iniciado los trabajos de construcción correspondientes a la Fase 1b., Peñaskal-Venta Alta. La obra está dividida en dos fases: por una lado, la ejecución de la infraestructura en dos tramos de actuación y,por otro, la ejecución de la superestructura.

Los tramos de infraestructura son:

- Tramo Peñascal-Bolintxu
- Tramo Bolintxu-Venta Alta (este tramo está subdividido, a su vez, en dos actuaciones: Bolintxu-Enlace Venta Alta y Túnel Seberetxe)

## 3.- Bestelako agindu batzuk

Interbiakek kudeatzen dituen azpiegiturei edo antzeko e dituztenei lotuta (berbarako, tunelen proiektuak) dauden Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko proiektu askotan Interbiakek zerbitzu espezializatuak egiteko jasi dituen aginduekin bat, 2008 urtetik aurrera proiektu batzuk idatzi eta bideratu dira.

## 3. Otras Encomiendas

Conforme a las encomiendas recibidas de prestación de los servicios especializados de Interbiak a diversos proyectos del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia, relacionados con las infraestructuras gestionadas por Interbiak o con características similares (como proyectos de túneles), desde el año 2008 se ha realizado la redacción y viabilización de diversos proyectos.

- Gerediaga-Elorrio tarteari dagokionez, joan den 2012tik, Interbiakek arreta eta zaintza lanak egiteko agindua du jasota, bai eraikitze fasean bai ustiapenerakoan ere..
- 2020an zehar Bidesaria Planeko zenbait ekintzekin jarraituko da, baita, proiektuen erredakzioarekin, adibidez, itsasadarraren azpiko tunela eraikitzekoa.

## 2020ko Kapital Aurrekontuaren laburpena

Aurrekonturatutako inbertsioen destinoa (BEZik gabeko zenbatekoetan) honako banakapen honi dagokio:

- Ibilgetu materiala: 68,300 milioi euro
  - Azpiegituren arloko jarduketak (68,280 milioi euro):
  - Funtzionamendurako inbertsioak:
    - Sozietatearen funtzionamendu orokorrerako hainbat ibilgetu erosketak (0,020 milioi euro).
- Ibilgetu ez materiala: 0,050 milioi euro

Kapitala zabaltzea aplikatuko da aurreko paragrafoan zehaztutako inbertsioak finantzatzeko.

- En relación al tramo Gerediaga-Elorrio, desde el año 2012 Interbiak tiene encomendados los trabajos de inspección tanto en la fase de construcción como de su posterior explotación.
- En el año 2020 se continuará con la realización de diversas actuaciones previstas en el Plan Bidesaria y la redacción de proyectos como el del túnel bajo la ría.

## Resumen de Presupuesto de Capital 2020

El destino de las inversiones presupuestadas (en importes sin IVA) se corresponde con el siguiente desglose:

- Inmovilizado Material: 68,300 millones euros
  - Actuaciones en infraestructuras (68,280 millones de euros):
  - Inversiones de funcionamiento:
    - Adquisiciones de diverso inmovilizado para el funcionamiento general de la sociedad (0,020 millones euros)
- Inmovilizado Inmaterial: 0,050 millones euros

La aplicación de las ampliaciones de capital es para financiar las inversiones detalladas en el párrafo anterior.